

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



Kaixo herrikide!!!

Uda atzean utzi genuela bada hilabete eta ikasturte berria ere hasia da. Hori horrela, Igeldon jarri dira martxan Eskola, Haurreskola, ikastaroak, herriko taldeen eguneroko lana... Ale honetan, horien berri izango duzu.

Horrez gain, Herri Kontseiluaren, Itsas Aurreren

eta Kooperatibaren azken berriak bildu ditugu, herriko beste hainbat albistekin batera.

Eta ezin ahaztu, Udazken Jaia! Azken orrialdean duzue egitaraua.

Gustatuko zaizuelakoan... on egin!

Udalaren plana eta suteak gutxitzeko neurriak, aztergai

Donostiako Udalak plan bat prestatu du Mendizorrotzeko Parkerako eta horri buruzko bilera izango da 27an.

Mendizorrotzeko Parkeari begira, Herri Kontseiluaren aspaldiko eskaria izan da plan bat martxan jartzea. Azken urtean, Donostiako Udalak plan bat osatu du inguru hori nola kudeatu zehaztuz eta horren berri eman dio Herri Kontseiluari. Bertan, sute arriskua gutxitzeko, zonalde bat hartzen da kontuan eta horretarako, hiru alternatiba proposatzen dira. Horietako bat, eremu batean abereak sartzea litzateke, ingurua garbi mantentzeko.

Herri Kontseiluak gaiaren inguruan hitz egin nahi du herritarrekin eta iritzia jaso. Horretarako, bilera antolatu du hilaren 27an. Itsas Aurren izango da, 20:30etan.

Herri Batzarra, azaroan

Herri batzarra ere egingo du Herri Kontseiluak datorren hilabetean, esku artean dituen gaien eta proiektuen inguruko azalpenak emateko. Hitzordua azaroaren 19an jarri dute.

200 herritarren galdeketak jaso dira, oraingoz

Azken zonaldeko (ekialde-mendebaldea) herritarren galdeketak biltzen ari dira.

Herri Kontseiluak parte hartze prozesu bat jarri zuen martxan urtarrilean. Zonalde ezberdinetan galdeketak banatzen aritu ondoren, momentu honetan, azken zonaldeko (ekialde-mendebaldea) herritarren galdeketak biltzen ari dira.

Orain arte 200 herritarren galdeketak jaso dira eta jasotako galdetegi guztien erantzunak prozesatzen ari dira. Azken zonaldekoak jasotzen direnean, emaitzak aztertu eta eztabaida talde desberdinak antolatuko dituzte, emaitza guztiekin ondorioak atera eta horiek, dagokion tokian aurkezteko.

Galdeketa egiteko aukera

Herri Kontseilutik adierazi nahi dute, etxeren batera edo herritarren bati ez bazaio galdeketa iritsi, oraindik egiteko aukera izango duela: «Horretarako, 15 egun dituzue eta kultur etxeko bulegoan eskura izango dituzue galdeketak».

Bestalde, Herri Kontseiluak eskerrak eman nahi dizkie galdeketa egin duten herritar guztiei eta baita galdeketak etxeetara banatzen lagundu duen talde laguntzaileari ere.



Giro ederrean ibili ziren gerturatutako herritarrek.

Primerako aperitiboa, eskerrak emateko

Festetan laguntza eman zuten herritarrei eskerrak emateko, aperitiboa antolatu zuen Herri Kontseiluak. Abuztuaren 13an egin zen eta giro oso onean ibili ziren. Jendeak eskertu zuen detailea.

Pilotegi bidea berritzeko lanak egingo dira

70.000 euro inguruko aurrekontua du obrak. Orain, kontratazio publikora aterako da proiektua, beraz, noiz hasiko diren lanak ez dute zehaztu.

Pilotegi bidea, Eskolatik hasi eta Ibaetaraino, oso egoera kaxkarrean dago eta behin baino gehiagotan eskatu dio konpontzeko Herri Kontseiluak Donostiako Udalari (baita beste zenbait bide ere).

Abuztuan Herri Kontseiluak jakin zuenez, diru partida bat bideratzea erabaki zuen Udalak eta orain, kontratazio publikora aterako da proiektua. Hori horrela, noiz hasiko diren lanak ez dute zehaztu. 70.000 euro inguruko aurrekontua du.

Beste hainbat kasutan bezala, proiektua lantzerako garaian, Udalak ez duela Herri Kontseiluarekin harremanik izan jakinarazi dute.

Lanen azalpena

Gutxi gorabehera zer berrituko duten azaldu dio Udalak Herri Kontseiluari, proiektuaren inguruan galdetu ostean: Igaratik hasita, Osinalde etxeraino, zati txiki bat konponduko da. Ondoren datorren hormigoizko aldapan, zati bat konponduko da, kurbara

iritsi aurretik. Muñoko sarbidea pasata, hormigoizko bide guztia konponduko da ezkerretara gertzen den landetxera arte. Hortik, Aristondora arte, karretera txukunduko da eta kuneta eta lurra- ren arteko zatia ere bai. Aristondo pasata, zati bat txukunduko da (behiak egoten diren inguruan). Bertatik, Aristegietaraino, aglomeratu kapa berria jarriko da. Aristegietatik bidegurutzetara (aldapa handia hasten den arte), hormigoiarekin berrituko da.

Zabor pilaketa eta itxitura bat, beste bi gai

Hainbat puntutan zabor pilaketak izaten direla eta, neurriak hartzeko eskatu zaio Udalari. Arazoak ematen ari den itxitura bati buruz ere galdetu zaio.

Beste bi gai ere baditu pendiente Herri Kontseiluak Udalarekin. Alde batetik, herriko hainbat gunetan zabor pilaketak izaten direla eta (kanpinoko kontenedoretan, Ibaetako kontenedore borobilean), eskaera egin zion uztailean, beharrezko neurriak hartzeko. Azken aldian, nahiko txukun daude puntu horiek.

Dena dela, bi alde ikusten dizkio arazo honi Herri Kontseiluak:

- Zaborra biltzera behar den maiztasunarekin pasatzea.
- Jendeak denetarik eta nahi bezala ez botatzea zaborra.

Hondakinak bereizi eta Garbigunera

Herri Kontseiluak azaldu du, badirela kanpotik etorritakoak zaborra leku horietan uzten dutenak, baina bertakook ere gauzak behar bezala egin behar ditugula: «Hondakinak bereizi eta dagokien kontenedoreetan bota behar dira. Bolumen handiko trasteak ateratzeko, egun jakinak daude, eta bestelako hondakinak botatzeko, Garbigunea dago».

Itxituratik metro bateko tartea
Errepide nagusitik, Marabietara doan bidean, Bordaberri Txiki baseri inguruan, itxitura bat egin du herritar batek. Bideari pega-pega eginda jarri du eta ondorioz, herritarrek arazoak daukate bide horretan ibiltzeko; batez ere, traktore eta gurdiek.

Itxituratik metro bateko tartea

Errepide nagusitik, Marabietara doan bidean, Bordaberri Txiki baseri inguruan, itxitura bat egin du herritar batek. Bideari pega-pega eginda jarri du eta ondorioz, herritarrek arazoak daukate bide horretan ibiltzeko; batez ere, traktore eta gurdiek.

Donostiako Udalak ez du ordenantzarik hori arautzen duenik, baina Foru Aldundiak badu lege bat eta horren arabera, itxituratik bidera, metro bateko distantzia utzi behar da.

Herri Kontseiluak eskaera egin dio Udalari gaia aztertzeko eta konponbide bat emateko, bidea erabiltzeko moduan egon dadin herritar guztientzat.

Seinalizazio berria

Seinale berriak jarri dira herrian, kaleak eta bideak errazago identifikatzeko.

Herri Kontseiluaren eskariari erantzunez jarri ditu Udalak, batez ere, Suhiltzaile, anbulantzia... gidariak azkarrago identifikatzeko lekuak. Dena dela, Herri Kontseiluak azaldu du, beste mota bateko seinalizazioa eskatu zuela, diseinu aldetik ere herriarekin bat zetorrena (egurrezkoak...), baina Udalak aukera bakarra eman du.

Bestalde, akatsak ikusi dira eta Herri Kontseiluak dei egiten die herritarrei, besteren bat ikusiz gero, abixua pasatzeko: 606311734 / herrikontseilua@gmail.com.



Eskola zaharra eta kultur etxea, txukun-txukun

Herri Kontseiluko eta herriko hainbat eragileetako kideek garbiketa sakona egin dute eskola zaharrea eta kultur etxean.

Eskola zaharra eta kultur etxea txukuntzen aritu dira Herri Kontseiluko eta herriko hainbat eragileetako kideak eta txukun-txukun geratu dira. Orain, egoera horretan mantentzeko saiakera egin behar dela azaldu dute: «Denon onerako izango baita».

Gauza bakoitzak bere lekua

Eskola zaharrea, herriko material bakoitzari bere lekua jarri zaio. Plano batean zehaztuta jarriko da elkarte eragileetako kideek argi jakin dezaten gauza bakoitza non dagoen, eta erabili ondoren non utzi behar den.

Kultur etxeko garbiketa, erabakitzeke

Orain arte, kultur etxearen garbiketa orokorra txandaka egin izan da herriko eragileen artean.



Hilabete behin, elkarte eragile bat arduratzen zen eraikinaren garbiketaz (eguneroko txukuntasuna, erabiltzaileen ardura izan da eta izaten jarraituko du).

Hurrengo eragileen arteko bileran, gaiari buruz hitz egingo du Herri Kontseiluak eta bertan erabakiko da hemendik aurrera nola egingo den garbiketa orokorra

Alaia Martin, finalurrekoan

Bertsolari Txapelketa Nagusia hasi da eta bertan lehia dabil tza Alaia Martin eta Jon Maia Igeldon bizi diren bi bertsolari. Alaia Martin finalurrekoan izango da Baigorriko saioa irabazita. Jon Maia ikusteke dago (Orri Informatiboa bukatzerakoan, final laurdena jokatzeke zuen).

Bestalde, finalurrekoetako eta finalerako sarrerak salgai daude interneteko atari honetan: www.bertsosarrerak.eus. Finalaren kasuan, Donostiako Hontza liburudendan ere bai.

Autobusa kreditu txartelarekin ordaintzeko aukera

Dbusek, pasa den abuztuaren 11n, proiektu pilotu bat jarri zuen abian Igeldoko autobus linean (baita 45 linean ere). Proiektu hau dela eta, eguneko bidaia txartela kreditu txartelarekin ordaindu daiteke. Hain zuzen, Visa, Mastercard eta American Express kreditu txartelekin, zordunketa txartelekin (EMV) eta mugikorretako aplikazio batzuekin.

Astearteak, kanturako egunak

Lezkarri abesbatza hasi da entsaioekin. Ateak irekita dauzkate herritarrek.

Lezkarri abesbatza hasi da bere ohiko entsaioekin. Asteartero elkartzen dira kultur etxean, 19:30etatik 21:30etara. Momentu honetan, 18 lagun eta zuzendariak osatzen dute taldea: 10 emakume eta 9 gizonezko. Dena dela, azaldu dute gustatuko litzaiakela jende gehiago gerturatzea, «batez ere, gazteak sartzea jarraipenerako». Beraz, kantatzea gustoko duten herritarrek irekita dauzkate ateak.

Egungo zuzendaria Nize Crespo

da, Valentziarra jatorriz, eta musika pedagogia ikasten ari da Donostian. Lezkarri gain, Geta-riko abesbatza ere zuzentzen du.

Azaroan emanaldia, Goizuetan

Joan den urtean, Goizuetakoekin eta Astigarragakoekin kontzertua eman zuten Igeldon, eta orain, Goizuetan emango du kontzertua Lezkarri, «gure herrietako abesbatzen artean harremanak egiteko izaten da», diote. Kontzertu hori azaroaren 12 inguruan izango da.

Euskal kantuak zabaltzea helburu

Nahiz eta aurrean, herriko jaietan kontzerturik ez duten eman, Lezkarriren helburuetako bat da herrian euskal kantuak zabaltzea eta kanturako gogoia indartzea. Hori horrela, urtean pare bat kontzertu eman eta kantujira indartzeko asmoa dute.

Horrez gain, gaineratu dute beraien errepertorioan hizkuntza desberdinetan abestu arren, euskararen erabilerari ematen diotela lehentasuna.

Ongi etorria emanez, informazioa zabaldu

Desanexio prozesua zertan den azalduz, informazioa banatu zuen Itsas Aurrek, Tximistarriko parkinean. Ekintza gehiago ere izango dira datozen hilabeteetan.

Urriaren 1ean, igande eguerdian, Itsas Aurrekoen deialdiari erantzunez, zenbait herritar Tximistarriko parkinean elkartu ziren. Igeldora kotxeetan zetozenei desanexio prozesua zertan den informatu zitzaizen eta pankartako lemak zioen moduan, ukazioaren aurrean autodeterminazio eskubidea aldarrikatu zuten. Goranzko norabidean zetozen autoak parkinetik desbideratuz, ongi etorria eman eta esku orriak banatu zituzten, igande eguerditan Igeldora jende asko igotzen dela aprobetxatuz.

Datozen hilabeteetan, Itsas Aurrek desanexioaren gaia berriro indartzeko zenbait ekintza egiteko asmoa du eta Tximistarrikoa ere plangintza horren barruan kokatzen da.

Kataluniari babesa

Bestalde, urriak 1ean Kataluniako erreferendum eguna zela kontuan izanik, Tximistarriko ekintza bukatzean, herrian elkartu eta topa he-



Tximistarriko parkinean kotxeak desbideratu eta informazioa banatu zuten.



Iluntzean kazerolada egin zuten Kataluniari babesa adieraziz.

rrikoia egin zuten, Katalandar herriari babesa eta elkartasuna adierazteko. Iluntzean ere, Katalunian

izandako gertakariak ikusita, Euskal Herriko zenbait herritan bezala kazerolada egin zen kaxkoan zehar.

Sindikatuako proiektuaren inguruan azalpenak emango dituzte

Kooperatibako kideek postua jarriko dute Udazken Festako azokan. Eskuartearen darabilten proiektuaren inguruko azalpenak emango dituzte.

Kooperatibako kideek batzarra burutu zuten uztailean eta bertan, proiektu bat proposatu zuten kooperatiba martxan jartzeko prozesuaren barruan. Proiektu horren ardatz nagusia da, sindikatuan denda jartzea, besteak beste.

Dena dela, proiektua gauzatzeko, herrian zabaldu beharra ikusten dute eta baita bazkide gehiago erakartzeko beharra proiektua sendotzeko.

Hori horrela, urte bukaera arteko epea onartu zuten proiektua herri-

an zabaldu eta bat egiten duten herritarrak kooperatibara biltzeko.

Eta guztiaren berri emateko, Udazken Festako azokan egongo dira. «Bertan, proiektua aurkeztu eta zuen zalantzak argitzeko postu bat jarriko dugu», azaldu dute.

Robotika, Pilates eta Hipopresiboak aurtengo berritasunak

Ikastaroak martxan dira. Ikasturte honetan, 12 ikastaro izango dira eta 113 ikasle. Lekua egonez gero, izena eman daiteke oraindik.

Urriarekin batera, ikastaroak hasi dira martxan. Denera, 12 ikastaro izango dira ikasturte honetan eta horietatik hiru, berriak dira: Robotika, Pilates eta Hipopresiboak. Ikasleei dagokienean, 113 lagun ariko dira klasek jasotzen.

Yogan, hiru talde

Yogak sekulako arrakasta izan du aurtengo talde bat gehiago osatu da; hori horrela, hiru talde izango dira. Iazko irakasleak jarraitzen du, Aline Loitzenbauerrek eta horrek eragina izan du, jendea oso gustora aritu baitzen iaz.

Gitarran, txikien taldea

Aurten, txikien taldea ere sortu da gitarran. Lehenengo mailako bi ume apuntatu dira eta kasu honetan, ordu erdiko klaseak jasoko dituzte.

Sei irakasle berri

12 ikastaro horietan, 11 irakasle ariko dira lanean eta sei berriak dira: Steve Taylor (inglesa), Naiara Egaña (pianoa), Maialen Lagos (zumba), Joxe Caballero (pilates), Mikel Echeverria (robotika) eta Laura Izagirre (hipopresiboak).

Gainerakoak: Iker Dorronsoro (trikitixa), Aitziber Gabilondo (panderoa eta musika tailerra), Aiora Etxebeste (euskal dantza), Alvaro Modrego (gitarra) eta Aline Loitzenbauer (yoga).

Lekua egonez gero, apuntatzeko aukera

Ikastaroak martxan izan arren, lekua egonez gero, apuntatzeko aukera dago. Hiru bide daude:

- Kultur etxetik pasa: astelehenerik ostegunera (15:30-19:30) eta ostiraletan (10:00-14:00).



Robotikako asteazkenetako taldea.

2017-2018 IKASTAROAK

IKASTAROA	EGUNA	ORDUA
Ingelesa	Astelehen, astearte, asteazken	Mailaren arabera
Pianoa	Astelehen eta ostegun	Bakarka zehazteko
Euskal dantza	Larunbata	11:00-12:00 (txikiak); 12:00-13:30 (handiak)
Gitarra	Astelehena	18:15-18:45 (txikiak); 18:45-19:45 (handiak)
Pilates	Astelehena	20:00-21:30
Hipopresiboak	Osteguna	20:00-20:45
Yoga	Astearte	20:00-21:30
	Osteguna	18:30-20:00 eta 20:00-21:30
Zumba	Astelehen eta asteazkena	20:00-21:00
Trikitixa	Astelehen eta asteazkena	Bakarka zehazteko
Panderoa	Astearte	16:30-17:30 (txikiak); 18:30-19:30 (handiak)
Pandero mantentzea	Hilabeteko azken astearte	19:30-20:30
Musika Tailerra	Astearte	17:30-18:30
Robotika	Astearte eta asteazkena	16:30-17:30
Mintzapraktika	Asteazkena	15:30-16:30
Akuarela (saio irekia)	Asteazkena	16:30
Ongizate Tailerra	Hilabeteko lehen ostirala	

- Telefonoz deitu: 943 313030 / 606 311 734

- Idatzi helbide hauetara: herrikontseilua@gmail.com edo ieltxoelkartea@ymail.com.

Akuarela saio irekiak, asteazkenetan

Garai batean akuarela ikastaroa egin zen eta orduan ibilitako herri-tar batzuk elkartu eta saio irekiak egitea pentsatu dute. Asteazkenetan elkartzen dira kultur etxean. Ez da irakaslerik izango.

Horretaz aparte, Badira borondatezko saio edo tailerrak ere: Ongizate Tailerra eta Mintzapraktika.

Aurtengo ikastaroak Ieltxok, Herri Kontseiluak eta Guraso Elkarteak antolatuta dituzte elkarlanean.

Pelota ere, martxan

Pelota elkarteak ere ekin dio ikasturte berriari. Aurten ere, astearte eta ostegunetan izango dituzte herriko haurrek pelota saioak (17:30-18:30). Momentuz, 6-12 urteko 12 haur dabilta.

64 ikaslek ekin diote ikasturte berriari

Igeldoko eskolan, proiektuka egiten dute lan eta "Gorputza" lantzen ari dira orain.

Igeldoko Herri Eskolak 2017/2018 ikasturteari hasiera eman dio. Beste ikasturte bat dute aurrean, herriko haurrak eta neska-mutikoak eskola-giroarekin gozatuz, herrian bertan hezitzeko.

Aurtengo ikasturtean, 64 ikasle ariko dira 5 gelatan banatuta: 2 Haur Hezkuntzan eta 3 Lehen Hezkuntzan. Hiru irakasle berri etorri dira aurtengoan eta ongi-etorri beroa eskaini diete eskolakoek: irakasleek, ikasleek zein gurasoek.

Ikastetxean proiektuka lan egiten dute eta aurtengo lehen hiruhilekoan "Gorputza" lantzen ari direla azaldu dute. Eta gaineratu dute proiektuak lantzerakoan oso gustora hartzen dituztela eskolaz kanpokoen aportazioak: «eta aurten ere esker-tuko genuke guraso zein beste edozein herritarren laguntza», diote.

Gurasoen laguntza, ezinbestekoa

Eskolako gurasoen laguntza eta partehartzea azpimarratu eta eskertu nahi izan dute Orri Informatiboaren bidez, «ezinbesteko laguntza eskaintzen baitute eta horrek laguntzen du herria egiten ere».

Horrez gain, gogorarazi dute Igeldoko Ikastetxea Eskola Txikien sarean sarturik dagoela eta beren aldarrikapena "Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik" dela.

Bukatzeke, honakoa ere azpimarratu nahi izan dute eskolakoek: «Eskola DENONA eta DENONTZAT da: ESKOLA IREKIA da Igeldoko Herri Eskola».

Irteera, Beizamara

Ikasturte honetako txangoa ere

Futbola, igeriketa eta ikastaro berria, Guraso Elkartearen eskutik

Mendizorrotz Guraso Elkartea ere, buru belarri dabil lanean ikasturte berria hastearekin batera. Orri Informatiboari azaldu dionez, hainbat ekintza antolatu dituzte aurten ere, eskolarekin elkarlanean.

Azken urteetan bezala, eskola txikien arteko futbol txapelketa antolatu dute eta bi talde daude: txikiena eta handiena.

Horrez gain, iaz bezala, antzerkia emango dute eskolan eta eskolatik kanpo, igeriketa antolatu dute. Astelehenetan dira saioak eta 20 bat ume apuntatu dira. Antzerkiari dagokionez, 22 saio jasoko dituzte ikasturte osoan zehar.

Bestalde, proiektu berri bat jarri dute martxan. Bertan, lagunarteko harremanak sustatzeko ikastaroa emango dute. Jolasen bidez izango da.

egin dute dagoeneko. Urriaren 10 eta 11n Beizamako aterpetxera joatekoak ziren Lehen Hezkuntzakoak.

Haurreskolan, 11 pertsona dabilta

Bi geletan (0-1 eta 1-2 adinetakoak), plaza hutsak geratzen dira. Haur bakoitzaren erritmoa eta beharrak errespetatzea dute helburu hezitzaileek.

Igeldoko Haurreskolaren berri ere eman diote Orri Informatiboari. Momentu honetan, 11 pertsona bizi direla azaldu dute: 9 haur eta 2 heldu.

0-1 adineko gelan, momentuz, ez dagoela inor gaineratu dute, baina urriaren erdialdean beste haur berri bat etorriko zaiela. Hori horrela, 7 plaza huts geratzen zaizke oraindik.

1-2 adineko gelan, berriz, 9 haur daude eta nahi izanez gero, 4

plaza huts daude.

Mugimendu askearen alde

Haur bakoitzaren erritmoa eta beharrak errespetatzea da hezitzaileen helburu garrantzitsuena: «Horretarako, haur bakoitzaren garapenaren etapak kontutan hartuz, Emmi Piklerren mugimendu askearen aldeko teoriarik oinarritzen gara, haur bakoitzaren gaitasuntan sinesten dugulako», diote.

Bestalde, Hezkidetza da

Haurreskolako bidelagunen abiapuntua: «Haur bakoitza berak nahi duen bezala hazi dadin, bere gogoak, nahiak, desioak, ... euren bidearen oinarria izan behar direla pentsatzen dugu. Ahalik eta eragin gutxiena jaso dezaten sexu genero arauak alde batera utzi eta norbanakoaren izaerak kontutan hartuz lan egiten saiatzen gara. Guztion arteko errespetu eta botere harremanak ekidinez», gaineratu dute.

Hiru egunez, aukera zabala gozatzeko

Udazken Jaia izango da urriaren 20, 21 eta 22an. Hitzaldia, auzolana, kantujira, dantza ikuskizuna, azoka eta herri bazkaria izango dira, besteak beste.

Urrian ohi den bezala, Udazken Jaia izango dugu. Hain zuzen, datorren asteburuan izango da, urriaren 20, 21 eta 22an. Egitarau zabala prestatu dute, denon gozamenerako. Hasteko, ostiralean, erabakitze eskubidearen inguruko hitzaldia antolatu du Itsas Aurrek.

Auzolana, Gurasoek antolatuta

Iaz bezala, Auzolana egingo da larunbatean, Guraso Elkarateak antolatuta. Herrian zehar ikusiko dute zer behar dauden edo zer dagoen txukuntzeko eta gerturatzen diren herritar guztien artean atonduko dute. Ondoren, bazkaria izango da parte hartu duten guztientzat. Eguna borobiltzeko, kantujira eta dantza ikuskizuna izango dira, besteak beste.

Igandean, berriz, ez dute hutsik egingo azokak, herri bazkariak, erromeriak eta noski, taloek!!!



UDAZKEN JAIA 2017

URRIAK 20, ostirala

19:30etan, HITZALDIA eskolan, Itsas Aurre elkarateak antolatuta: "Erabakitze eskubidea ere, txikitasunetik hasten da".

Hizlariak: Xabier Arregi eta Garbiñe Errekondo.

URRIAK 21, larunbata

10:00etan, AUZOLANA Guraso Elkarateak antolatuta.

Ondoren, BAZKARIA indarrak berritzeko. **Arratsaldean zehar, JOLASAK.**

19:00etan, KANTUJIRA Lezkarri abesbatzak girotua.

21:00etatik aurrera, BOKATAK jateko aukera izango da.

22:30etan, TIO TERONEN SEMEAK dantza ikuskizuna.

URRIAK 22, igandea

10:30-13:30, AZOKA Igeldoko baserrietako produktuekin.

14:00etan, HERRI BAZKARIA kultur etxean, Din Din elkarateak prestatua. Bertan, Igeldoko aiton-amonak omenduko dira.

**Bazkariko txartelak: Txapela tabernan (25€ helduak; 12€ haurrak).*

18:00etan, ERROMERIA Leire eta Amaiaren eskutik.

18:10etatik aurrera, IGELDOKO TALOGILEEK prestatutako merienda goxoa.

OHARRA: Plazan barra irekia (09:00-14:00 eta 18:00-21:00).

OHARRA

Iritzi-artikulua argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak abenduan eta otsailean izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



**IGELDOKO
HERRI
KONTSEILUA**

Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com



Laguntzailea **Donostiako Udala**